

# Jose Luis Alvarez Enparantza 'Txillardegi'



69 urte ditut, zoritxarrez.

Libra naiz; Frantzian "Balance" esaten zidaten, ordura arte ez nekien zer nintzen. Jonerekin ezkon-  
duta 1957az geroztik. Lau seme-alaba ditut: Jon eta Joseba bikiak (39 urte), Maddi (38) eta Mikel (36). Beste lau hiloba: Garazi (8), Manex (6), Eneka (4) eta Mauriñe (3). Hiru txakur: aspaldikoen 'Beltza', bigarrena 'Ituntun', eta 'Eka', due-la sei hilabete ekarritako Auñamendiko mastin txuria. Une honetan oporretan nago. 'Putzu' izeneko nobela historikoa amaitu nahian nabil. II. Karlistada garaikoa. Donostiako Putzu kaleko pertsonaia baten inguruan.

JACORA MANTEROA

## Intelektual konprometitua

Hala definitzen du bere burua 69 urteko donostiar honek. Hainbat alor jorratu ditu, ez ditu maite definizio sinplista eta apolitikoak, eta intelektual konprometitu horrek zer esan nahi duen argi utzi nahi du: «Erradikala, euskaltzale eta abertzalea, ETAKoa, herri honetako gizona...». Jose Luis Alvarez Enparantza, Txillardegi, aski ezaguna da. Adiskide adina etsai omen du; «gauza batzuk behar zen garaian baina egoki ez zen unean esan nituelako». Ahoa zabaldu orduko aldeko eta kontrako erreakzioak eragiteko bertutea dauka. Erretiratzekotan behartuta erretiratuko dute urte honen amaieran. Baikor ageri da euskararen inguruan eta Lizarra-Garaziko akordioaz geroztik irekitako prozesu politikoaren inguruan: «Behingoz euskaldunok espainolak bazterrean utzita zerbait egitea lortu dugu».

### ■ Zer nolako pertsona da Txillardegi?

Esango nuke nire ezaugarri nagusia abertzaletasuna dela. Euskararik gabe Euskal Herririk ez dagoela diot, eta, gainera, hemen borrokarik gabe ez da ezer izango. Hori da naizena eta pentsatzen dudana. Nire ideiak eta nire gauzak ditut. Baina ni nire herriko gizon bat naiz. Kartzelan daudenekin identifikatzen naiz; ETAKoa naiz. Aurkezpen apolitikoen aurka nago. Horregatik, intelektual konprometitua naizela esatea gustatzen zait.

### ■ Zer egiten du Txillardegik lan eta aktibismo orduetatik kanpo?

Normalean hemen egoten naiz, baserrian. Azken boladan liburuarekin lanpetuta nago. Irakurtzeko astirik ere ez dut. Garai batean asko irakurri nuen: literatura, filosofia, historia... Gero, ETA sortu genuenean, irakurketa bigarren planora pasa zen. Literatura irakurtzeko asmo zindoa badut; ea liburua bukatzerakoan hasten naizen...

### ■ Donostiarra izanik, nola erabaki zenuen Amasara etortzea?

Egia esan, beti izan dut baserria edo mendira, hiririk kanpo ateratzeko grina.

# «Faktura ordaindu dut gaurak behinenean esan nituelako»

→ Ume txikiekin ezin genuen. Baina atzerri aldean hamasei urte egin eta gero itzuli nintzanean aukera atzertzen hasi ginen. Noski, ez zen erraza izan: azkeneko bolada Frantzian lanik gabe igaro nuen, paperik gabe... Atzerri aldeetik xentimorik gabe etorri ginen. Orduan, aukera handirik ez genuen. Halako batean Amasako etxe honen aukera izan genuen, nola edo hala urrats hori egin eta hala etorri ginen duela hamalau urte. Oso pozik nago hemen.

## ■ Geroztik hemen al zabilta?

Etenaldi txiki bat izan ezik, bai. Etenaldi hori senadore nintzela izan zen. Bi legealditan izan naiz senadore HBtik, baina hori beharbada jende gutxi daki, lehenbizikoan Senatura agertu ere ez ginelako egin, eta bigarrengoan, berriz, kredentzialak eskatzera joan ginen egunean Alcalá hoteleko atentatu tamalargari hura jasan genuelako. Orduan, erabat beldurtuta ibili ginen. Gure aurka hasi zirela uste genuen, eta beldur ginen. Alcalákoak jarraipena izango zuten. Horregatik, tarte batean Amasako baserria utzi eta Donostiara itzuli ginen. Beldurra pixkanaka galdu genuenean etorri ginen berriro hona.

Elkarrizketa hasi baino ez dugu egin, eta hiru aldiz altxatu behar izan du Txillardegik telefono detei erantzuteko. «Zer arrazo gertatzen da? Ez pentsa hau eguneroko kontua denik». Telefonoa eskegi eta elkarrizketari berriro heldu aurretik etenaldi bat egitea erabaki dugu, argazkilaritari bere lana egiten uzteko. Baserritik irten eta inguruak erakutsi dizkigu. «Hona etorri ginenean baserria erdi erorita zegoen eta inguruak larreak baino ez ziren», dio harrotasun punttu batekin. Orain, etxea sendo dago, eta inguruak urkiz eta gorostiz apaindu ditu. Argazki saloa amaitu aurretik pianoaren aurrean jarri dugu. Bi pieza eskaini dizkigu.

## ■ Musika izan al da zure bokazio frustratua?

Izan liteke. Gazte denboran pianoak kilikatzen ninduen. Gure ama piano irakaslea zen, baina esan zidan: «Pentsatu ere ez. Pianoa ongi dago afizio bezala, baina bizitzeko ez». Orduan erabaki zuten ni injinerua izango nintzela eta hala joan nintzen. Egia esan, nik ez nuen bokaziorik, baina aitortu behar dut bizia ateratzen lagundu egin zidala. Nahiko zoriontsua izan nintzen alor horretan Belgikan jardun nuenean. Baina euskararekiko nuen jarrera hori zela medio, linguistika ikasten hasi nintzen Parisen. Orduan desbideratu nintzen injinerutzatik.

## ■ Zure lehenbiziko urteetako giroa ezin daiteke abertzale-euskaldun bezala definitu, familia giroan bederen. Noiz piztu zitzaizun euskal kontzientzia?

Egia esan, nireak ez du meritu handirik. Txikitatik bainuen grina hori. Gerra garaian baudezen liburu batzuk, orduko



motzean

## • Goizean jaikitzen lehenbiziko gauza?

Ariketa fisiko batzuk egiten ditut. Txakurrak hartu eta ordubeteko paseoa ematen dut. Gero, irakurtzen edo idazten hasten naiz. Orain liburuen aldean murgilduta nabil, eta eguneroko ohitura aldatu egin dit pixka bat.

## • Noiz, non eta nola irabazi zenituen lehenbiziko sosalak?

Lehenengo soldata Donostian irabazi nuen, Masse enpresan; diesel motoreak egiten genituen.

## • Negar egin duzun azken aldia

Duela gutxi.

## • Maitatzea ala maitatua izatea?

Maitatzea interesgarriagoa da, konplikatuagoa izan arren.

## • Euskal Herriatik kanpora egin duzun azken bidaia

Orain dela gutxi Katalunian egon naiz, Sitgesen.

## • Entzuteko musika pieza bat

Pianista txarra naiz baina pianoa asko gustatzen zait: Rubinstein, Chopin, Debussy...

## • Liburu bat.

...

## • Momentu bat.

Naturari lotutakoa.

## • Joan zaigun urteko gertakari pozgarri bat.

Lizarra-Garaziko akordioa.

## ...eta gertakari mingarri edo triste bat.

Gainontzeko urte guztia oso gogorra izan da abertzaleontzat.

Jaurilaritzak argitaratutakoak-eta, eta horietan azken orrietan euskarazko hiztegiak etortzen ziren. Haiei begira sartu zitzaidan grina hori.

## ■ Aktibista hasiera-hasieratik?

Niretzat problema nazionala problema linguistikoa da. Betidanik izan da hala niretzat. Orain badirudi jendea ohartzen hasi dela horretaz. Euskal abertzaletasunaren ardatza euskara da. Hori garbi dago orain, baina garai hartan ez zen horrela.

## ■ Ekin, ETA, ESB, EHE... garai jakin batzuk markatu dituzten talde-erakundeen sortzaileetako izan zara. Dena den, ez duzu gehiagi irauin talde horien barnean.

Ekin taldetik sortu zen ETA. Erakundearen 1967 arte egon nintzen. Zer gertatu zen? Guk EAJren aurrekaria geneukan gogoan eta ez genuen nahi ETARI gauza bera gertatzea. Orduan, erabakita geneukan, inoiz buruzagitzak kanpora aldegin beharrean gertatuz gero, barruan geratzen zirenek hartu beharko zutela buruzagitza. Nik aldegin behar izan nuen, erabakia hartu nuen buruzagitza utzi behar nuela.

ESBrena bestelako kontua da. Politika egiten hasi ginenean euskararen kontua atera zen. Nik esan nien premiazkoa zela urtebeteren buruan buruzagitzako guztiak euskaldunak izatea. Eztabaida gogorra izan genuen, hori ezinezkoa zela esaten baitzidaten. Orduan bota egin ninduten. Antimarkista nintzela eta ez dakit zer gehiagi leporatu zidaten.


EHE gure garaian sortu zenean kale borrokarako mugimendua zen. Mugimendu teorikoak baziren lehendik ere eta ez genion zentzurik ikusi antzeko beste bat sortzeari. Orduan ikusi genuen euskararen aldeko kale borroka egiteko gazteek hartu behar zutela protagonismoa. Horregatik nik ez nuen taldea utzi, baizik eta gazteen esku geratu zen. Logikoa da. Ni EHEkoa naiz teoriar behintzat.

## ■ Erradikala izatea dotrina izan al da zuretzat? Nola definitzen duzu zure erradikalismoa?

Jean Paul Sartrearen definizioarekin bat egiten dut nik. Hark esaten zuen: «radicalité, radicalité et toujours radicalité». Hori da nire definizioa ere, baina maila intelektualean, noski. Politikan beste joko bat da, baina intelektual batentzat, erradikala eta kito. Eta ni hala izan naiz. Erradikala arazo nazionallean.

## ■ Joan den larunbatean Bai Euskarari kanpainaren azken ekitaldiak hunkitu al zintuen?

Oso pozgarria izan zen, bai. Donostian eta Bilbon jende asko biltzea ez da gauza handia. Baina Gasteizen 20.000 lagun, Iruñean 24.000... hori oso harrigarria da. Nafarroan ikusi egin behar da zer jendilaje dagoen agintean. Baina euskararen arazoa ez da festa handi bat antolatu ahal izatea. Benetako arazoa da euskaraz egitea, bizitzea... Hori ez bada egiten alferrik da.



JAGORA MANTERO A

## ■ Non jarraitu behar du borroka?

Erabilpenean. Hori bultzatu behar da. Corpus-a egina dago. Euskara Batua nahiko definitua dago. Orain arazoa da corpus hori nola atera kalera. Oihenartek esaten zuen bezala, «arraina burutik kirastan da». Hau da, erakunde eta taldeetako buruak euskaldunak ez badira akabo. Euskal Herriaren dinamika aurrera eramaten dutenak euskaldunak badira, salbu gaude. Eta bide horretan, Juan Jose Ibarretxeren jokabidea adierazgarria izan liteke. Ibarretxek bere burua bortxatua ikusi du euskaraz ikastera. Hori seinale ona da.

## ■ Euskaltzaindiaren eta zure arteko amodio-gorrotto harremana izan al da?

Euskaltzaindiak uste du ni soberan nagoela; ba ondo. Nire ustez, gainera, Euskaltzaindiaren urte onak igaro dira. Garai batean, ezer ez zegoenean eta hori sortu zenean, papera bete zuten. Baina une honetan mugimendu izugarri bat dago: badaude fakultateak, bestelako erakundeak... Orduan, niretzat Euskaltzaindiak ez dauka eginkizun handirik, beste biderik hartzen ez badu behintzat.

## ■ Eraikuntza nazionalari gagozkiolarik, Lizarra-Garaziko akordioak zer ekarriko digu?

Nire ustez mugarri handi bat da. Lehenbiziko aldiz historian hemen antolatu da zer bait espainolik gabe. Eta hori izugarria da.

## ■ Baiok zara, beraz?

Bai. Baina batez ere alde horretatik. Azkenean, Euskal Herria gauza izan da zer bait egiteko espainolak bazterrean utzita:

«Jean Paul  
definizioare  
dut nik. Har  
"radicalité,  
tojours radica  
nire definiz  
maila inte  
noski. Politi  
bat da, bai  
batentzat, g  
ki

# ar zen garaian baina egoki ez zen



«Euskal Herriaren dinamika aurrera eramaten dutenak euskaldunak badira, salbu gaude. Eta bide horretan, Juan Jose Ibarretxeren jokabidea adierazgarria izan liteke. Ibarretxek bere burua bortxatua ikusi du euskaraz ikastera. Hori seinale ona da»

Hau ere berezia zen. Harreman asko izan nuen berarekin, baina ez zen erraza, ez pentsa. Zentzu askotan profetikoa izan zen. Baina garai batean marxista, leninista eta maoista ere izan zen, eta Hagara joaten zen Txinako enbaxadorearekin egotera... Pentsa! Eta hala ere harreman ona genuen.

■ **Zeintzuk izan dira zure maisuak, zure pentsamendua, bizimodua markatu dutenak?**

Sartre eta Bertrand Russell klabeak izan dira nire pentsamenduan. Bereziki arlo sozialean, ildo politikoa, egin dut bat beraiekin. Sartre herri zapalduen alde, komunismoaren kontra, Euskal Herriaren alde, eta ezker abertzalearen alde aritu zen... Frantses bat horrelako jarrerarekin! mirari bat zen. Horregatik niretzat gidarierako bat izan zen. Bertrand Russell ere bai; mende hasierako sozialista izan zen eta distantzia hartu zuen marxismo horretatik.

Nik ere distantzia hori hartu nuen eta etsi egiten diot. Ez dut sinesten kuarteleko sozialismo horretan. Stalinismoa ere aberaziotzat daukat. Batzuek diote stalinismoa desbideraketa izan zela. Nik ez dut hala uste. Marxismo-leninismoak horretara garmatzala uste dut.

■ **Bizitza osoan aktibismo politiko-kulturean jardun izanak fakturarik pasatu al dizu?**

Faktura pasatu dit sekula modan ez naizelako ibili. Ez nintzen EAJkoa izan modan zegoen unean, gero marxismoa modan zegoenean ez nintzen guri horretara igot... Erreakzionarioa izatea, eskuindarra eta horrelakoak leporatu dizkidate, eta EAJren alde, berriz, agnostikoa naitenez, ba... pentsa dezakezu. Eta oraindik askok ez didate barkatu. Gauza batzuk behar zen garaian baina egoki ez zen unean esan nituelako ordaindu egin dut, marjinatuta eduki naute.

■ **Aktibismo horren ondorioz bizitzaren beste alorretan hutsunerik sumatu al duzu?**

Familiarekin konturatzen naiz, gure seme-alabekin denbora gutxi eman dudala. Baina hori saltsan egon garen guztion ordaina izan da. Sarasketak ere ordaindu behar izan du, eta, orain, nire seme Joseba ordaintzen ari da.

■ **70 urte betetzeko ez zaizu asko falta. Erretiroan pentsatzen ari al zara?**

Fakultatean erretiraturiko naute. Emeritus maila ematen ez badidate datorren urrian, kurtsio berria beste batek eman beharko du. Orain, doktooretza mailan, Emeritus maila ematen badidate, orduan segituko nuke doktoratu klaseak ematen.



JAGOBAS MANTEROLA

«Gazte denboran pianoak kilikatzen ninduen. Gure ama piano irakaslea zen, baina esan zidan: «Pentsatu ere ez. Pianoa ongi dago atizio bezala, baina bizitzeko ez». Orduan erabaki zuten ni injinerua izango nintzela.»

ematen dion berotasuna». Nik ere hori egia dela pentsatzen dut. Formari ematen zaion balioari ez diot garrantzirik ematen. Nire asmoa nobela ideiaz jostea da.

■ **Mirande, Aresti, Saizarbitoria... Horiek ere berriztatzaileetakoak izan ziren. Zer harreman izan zenituen haiekin?**

Saizarbitoriarekin harreman handia izan nuen. Gero, bera politikoki ez zen gure aldetik joan; orduan hoztu egin zen zertxobait harremana, baina ez adiskidetasuna.

Miranderekin harreman gutxi izan nuen eta denak txarrak; bera fatxa bat zen eta...

Arestirekin handiagoa; berak lortu zuen nire *Elsa Schelen* argitaratzea. Harreman handia eta ona izan nuen. Baina Aresti ere oso berezia izan zen.

■ **Krutwigekin harreman berezia izan zenuen. Zer irakatsi zizun?**

PP, PSOE... IUK lagundu nahi badu, ondo. Baina PP eta PSOE kanpoan izatea bistan da positiboa dela.

■ **ETAren sorrera garaitik Fronte Abertzalea osatzearen aldekoa zinen. Oraindik gauza bera pentsatzen al duzu? Lizarra-Garaziko akordioa bide horretatik doala uste al duzu?**

Badirudi baietz. Batez ere fruituak ikusita, nik esango nuke hori egitez fronte abertzalea dela. Bere muga guztiekin (Nafarroa eta Iparraldea ez daude barruan), nahi den guztia, baina horrelako zerbait dela uste dut. Eta hori positiboa da.

■ **Literatura izan da jorratu duzun beste alorretako bat. Euskal eleberraren berriztatzaileetako kontsideratua izan zara. Dena den, kritika ofizialak gogor tratatu zaitu. Defendi zaituz.**

Kritika pilo bat izan ditut, eta ohituta nago. *Elsa Schelen* idatzi nuenean jasotako kritika gogorren ondorioz idazteko gogoak joan zitzaizkidan. Urte askotan egon nintzen idatzi gabe.

Garaian garaiko idazleek orduko joeraren alde edo kontra egiten dute. Gerra osteko giroan baserritarren mundua eta horrelakoak ziren hemengo literaturaren gaiak. Noski, horrek ez ninduen batere betetzen. Antzeko erreakzioa izan zuen Gabriel Arestirik ere.

Gure aportazioa gaiaren aldetikoa izan zen; ez teknika aldetik. Alde horretatik nik Unamunoren eragina izan dut. Hark esaten zuen: «Txanpon batean garrantzitsua ez da txanponaren balioa, baizik eta nire eskuak

• Koldo Añababe •  
AMASA